Hazkuntzak 2026an Euskadin duen kostua.



Zer kostu du hazkuntzak Euskadin eta zer ahalegin eskatzen die familiei.

2026ko azaroa

Save the Children

Txosten hau ***KSNET***, ***Knowledge Sharing Network, S.L.*** aholkularitzak burututako analisian oinarrituta egin da.
Hauek osatu dute ikerketa taldea: Mireia Alvarez, Elena Costas, Ines Salinas, Maria Sanchez,
Laia Telechea eta Pere A. Taberner.

Save the Children

Lurralderako Eragin eta Garapeneko zuzendaria: Catalina Perazzo; ***eragin Politiko eta Sozialeko arduraduna:*** Carmela del Moral;
egilea eta eragin Politiko eta Sozialeko teknikaria: Irati Álvarez; ***arte eta maketazioa:*** Giampiero Vilardi/Raúl Lucas; ***Grafikoak:*** Germán Gullón/VALBHY Design.

CC BY NC SA

Editatu:
Save the Children Espainia
2026ko azaroa

Aurkibidea

Laburpena 5

Giltzarri diren mezuak 6

Sarrera 7

Zergatik da garrantzitsua Euskadin hazkuntzak 2026an duen kostua kalkulatzea? 8

Hazkuntzaren kostua 2026an 14

Nola kalkulatzen da? Gastu-partiden definizioa eta zenbatespena 14

Hazkuntzaren kostuaren bilakaera 2026an (2024koaren aldean) 14

Laukia: Etxebizitza, igotzeari uzten ez dion kostua 18

Hazkuntzaren kostua adinaren arabera 20

Nor ez da heltzen? Hazkuntzaren kostua etxeko errentaren arabera 24

Hazkuntzak ezin du jarraitu pobretze-faktore bat izaten: ahaleginarekin jarraitzeko deia 25

1. jarduketa-ildoa: Haurrekiko ikuspegia jasotzen duen diru-sarrerak bermatzeko sistema bateranzko urratsak 27

2.jarduketa-ildoa: Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria (SAHLO) hazkuntzaren benetako kostura egokitzea eta horren aldizkako eguneraketa bermatzea 28

3. jarduketa-ildoa: Kreditu fiskal itzulgarriak ezartzea seme-alabak kargupean dituzten familien pobrezia murrizteko neurri gisa 29

4. jarduketa-ildoa: Hileko laguntza unibertsala zabaltzea seme-alabak dituzten familientzat Euskadin 31

5. jarduketa-ildoa: Etxebizitza egoki eta eskuragarri baterako eskubidea bermatzea 32

Metodologiari buruzko eranskina 33

Laburpena

Euskadin **2026an haur bat haztea hilean 899 euro** kostatzen da batez beste, Estatu osoko batez bestekoa baino %8 gehiago (64 euro gehiago). Kostua askotariko premien artean banatzen da, besteak beste elikadura, kontziliazioa, etxebizitza eta ezohiko gastuetan.

Adinak eta bizilekuak alde handiak ezartzen dituzte familientzat eta horiei hazkuntzak eskatzen dien ahaleginarentzat. Kostuak gora egiten du haurrak hazten doazen heinean, eta nerabezaroan jotzen du goia. Txosten honek familiei dakarkien kostua aztertzen du, eta aurreko edizioaren aldean izan duen garapena deskribatzen du. Euskadin, kostu hori %2,2 igo da 2024tik.

Haurrak dituzten familien %17rentzat, eskura dituzten diru-sarrerak ez dira nahiko kostu hori estaltzeko, ezta erabat horretara bideratuko balituzkete ere, eta hamar familiatik hiruk hazkuntzara zuzendu behar dute beren errenta erabilgarriaren %50 baino gehiago.

Zifra horiek indartu egiten dute hazkuntzari laguntzeko politikak familien errealitate ekonomikora egokitzeko dagoen premia: zenbat kostatzen den haztea, beharrak nola aldatzen diren adinaren arabera, eta zer zailtasun dituzten baliabide gutxien dituzten familiek.

Giltzarri diren mezuak

1. 2026an, Euskadin haur bat haztea 899 euro kostatzen da bataz beste hilean.

2. Kostua igo egiten da adinarekin: hilean 647 eurotik aurrera 0 eta 3 urte bitartekoen artean, eta 1.014 euroraino nerabezaroan.

3. Euskadik Estatuko batez bestekoaren baino hazkuntza-kostu handiagoa du, kosturik handien duen hirugarren autonomia erkidegoa da, Madrileko Erkidegoa eta Katalunia bakarrik ditu aurretik.

4. Haurrak dituzten euskal familien %17k ez du nahiko diru-sarrerarik hazkuntzaren kostua estaltzeko, ezta lortzen duten errenta guztia horretara zuzentzen badute ere.

5. Hamar familiatik hiruk beren errentaren erdia (%50) baino gehiago behar dute hazkuntza-kostuei aurre egiteko.

6. Laguntza publikoak ez dira beti garatzen familien beharrekin bat etorriz: hazkuntzaren kostua igo egiten da adinarekin; bitartean, SAHLO (Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria) gutxitzen doa edo seme-alabak dituzten familientzako hileko laguntza hazkuntzako adin txikietara mugatzen da.



Sarrera

Haur bat hazteak hura hazi ahala aldatzen doan behar multzo bati erantzutea dakar: elikadura, etxebizitza, arropa, hezkuntza, zainketak, garraioa eta aisialdia. Horiek estaltzeak ahalegin ekonomiko garrantzitsua eskatzen die familiei, eta horren magnitudea seme-alaben adinari nahiz egoera ekonomikoari eta bizi diren tokiari lotuta dago.

Save the Childrenek azken zenbatespena egin zuenetik bi urte igaro direnean, hazkuntzaren kostua eguneratzeak behar horiek zer bilakaera izan duten eta horiek estaltzeko zer ondasun eta zer zerbitzu behar diren jakiteko aukera ematen du. Partida guztiek ez dute bilakaera bera izaten; batzuk, gainera, hornidura eta laguntza publikoaren mende daude. Beraz, guztizko kostuan ematen diren aldaketek bilakaera oso desberdinak ezkuta ditzakete.

Txosten honek eguneratu egiten du 2026an Euskadin hazkuntzak duen kostua, eta jarraipena ematen dio Save the Childrenek 2018an, 2022an eta 2024an egindako kalkuluei. Analisiak hazkuntzarako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuen saski baten batez besteko kostua kalkulatzen du, eta adinaren, lurraldearen eta etxeko errenta mailaren arabera nola aldatzen den aztertzen du. Edizio honek aldaketa metodologiko bat dakar hezkuntza eta elikadura partidetan, familien errealitatea modu egokiagoan islatzearren. Alderagarritasuna bermatzeko, 2024ko kostua berriz kalkulatu da metodologia berriarekin, eta bilakaeraren azterketa 2024-2026 aldira zedarritu da (ikus metodologiari buruzko eranskina).

Eguneratzeak, gainera, aukera ematen du aztertzeko familien diru-sarrerak zenbateraino diren nahikoak kostu horiei aurre egiteko, eta baita politika publikoek hazkuntzari laguntzeko zer egiteko izan dezaketen zehazteko ere.

Zergatik da garrantzitsua Euskadin 2026an hazkuntzak duen kostua kalkulatzea?

Euskadiko hazkuntzaren kostua kalkulatzea funtsezkoa da haurren pobrezia oraindik ere errealitate iraunkorra eta bereziki kezkagarria den testuinguru batean. Azken urteotan politika publikoen arloan izandako aurrerapenak gorabehera, haurrak dira oraindik ere pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arrisku handiena duen taldeetako bat.

2024an, azken PGDIko (Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta) datuen arabera, Euskadiko haur eta nerabeen % 30,7 pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketako arriskuan bizi zen, helduen % 18,7ren aldean. Beste adin-talderik ez da heltzen maila horretaraino, hau da, 105.870 haur eta nerabe ari dira egoera hori pairatzen Euskal Autonomia Erkidegoan. Datu hori, Euskadin, EBko herrialde guztien batez bestekoaren baino 6,5 puntu handiagoa da.

Haurren pobreziak bere horretan dirau, eta agerian uzten du familia askok zailtasun ekonomikoak dituztela haurrak hazteko eta garatzeko baldintza egokiak bermatzeko orduan. Izan ere, etxean adingabeak izatea ahultasun ekonomikoaren faktore garrantzitsua izaten jarraitzen du, eta benetako pobreziaren tasa, berriz, %3,5 da 18 urtetik beherako adingaberik gabeko etxetan bizi direnen artean, baina %10,6ra igotzen da haiekin bizi direnen artean (PGDI, 2024).

Pobreziak eta hazkuntzak ere ez diete berdin eragiten gizonei eta emakumeei. Emakumeek diru-sarrera baxuagoak dituzte eta zainketen zati neurrigabe bat beren gain hartzen jarraitzen dute; horren isla da Euskadiko lanaldi partzialeko enpleguen %72,3 emakumeek betetzen dutela.[1] Desberdintasun horrek zama berezia du hazkuntzaren ardura bakarrik eramaten denean. Guraso bakarreko hamar familiatik bederatzik emakume bat dute buruan, eta 2024an etxe horietan

1 EUSTAT (2026). Biztanleria jardueraren arabera (BJA). Datu bankua. Euskal Estatistika Erankudea. Hemen eskuragarri: ***Banco de datos: Población en relación con la actividad (PRA)***

bizi ziren pertsonen erdiak baino gehiago (%52,1) pobrezian edo gizarte-bazterketako arriskuan zeuden; hau da, guraso bakarreko 10.201 familia zeuden egoera horretan. Pertsona bakar batek diru-sarrerak eta zainketak bere gain hartu behar dituenean, bereziki zaila da hazkuntzako gastuei aurre egitea.

Pobrezia egoeran hazteak bizitza osoan mantentzen diren orbainak uzten ditu. Haurtzaroan baliabiderik ez izateak baldintzatu egiten ditu elikadura egokia, osasun-arreta edo etxebizitza segurua bezalako oinarrizko beharrak, eta eragina izan dezake haurren garapenean, osasunean nahiz ikaskuntzan. Horren ondorioak, gainera, helduaroraino luza daitezke.[2]

Haztea garestia da, eta kostu hori bere gain hartzeko diren zailtasunak eragina dute familia askok seme-alabak izateari edo ez izateari buruz hartzen dituzten erabakien. 2024an 12.937 jaiotza erregistratu ziren Euskadin, 1975etik izandako kopururik baxuena,[3] eta emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua 1,17koa da.[4] Bilakaera horren atzean hainbat arrazoi daude, besteak beste, zailtasun ekonomikoak, lanbideko zailtasunak eta kontziliazioarenak.

Familien diru-sarrerek gora egin dute azken urte hauetan, baina baita bizitzaren kostuek ere. Hazkuntzari lotutako kostuen garestitzeak gero eta presio handiagoa eragiten du familien ekonomietan, eta mugatu egiten du familia askok beren seme-alaben beharrak behar bezala betetzeko duten gaitasuna. Soldata errealek

---

2 Haur Pobreziaren aurkako Goi Komisionatua. (2023). Pobreza infantil en España [Haur pobrezia Espainian]. Gobernu Presidentetza ***https://www.juventudeinfancia.gob.es/sites/default/files/infancia/garantia/documentacion_de_interes/PDF_Final_Pobreza%20infantil_simples.pdf***

3 EUSTAT (2025). 2024an 12.937 jaiotza erregistratu ziren EAEn, 2023an baino %3,8 gutxiago eta 1975etik izandako zifra baxuena. Jaiotzen estatistika. Euskal Estatistika Erakundea. Hemen eskuragarri: ***Estadística de nacimientos de EUSTAT***

4 EUSTAT (2025). Euskal AEko ugalkortasun-indize sintetikoa eta amatasunaren batez besteko adina urtearen arabera, lurralde historikoari jarraiki (2015-2024). Euskal Estatistika Erakundea. ***Tablas estadísticas: Índice sintético de fecundidad y edad media a la maternidad en la C.A. de Euskadi por año, según territorio histórico. 2015-2024***

2021eko hasierako mailen %2 azpitik jarraitzen dute estatu mailan.[5] Eta enplegu bat izateak ez du bermatzen etxeko oinarrizko premiak behar bezala bete ahal izango direnik. Euskadin, haurrak eta nerabeak dituzten etxeen ia %16 lan-pobrezian da, hau da, nahiz eta etxeko helduek lan egin, baina lortzen dituzten diru-sarrerak ez dira nahiko bizi-baldintza egokiak bermatzeko. Errealitate horrek bereziki eragiten die guraso bakarreko familiei (10 familiatik 4 dira) eta familia ugariei (%12,1).[6]

Seme-alabak dituzten familiek marjina txikiagoa dute ustekabeko gastuei aurre egiteko: 2025ean, familien %24,2k ezin zion aurre egin ustekabeko gastu bati, ardurapeko adingaberik gabeko etxeen %20,3ren aldean.[7] 2026an, gainera, prezioek gora egin dute berriro. Baina hazkuntzaren kostua ez dago KPI osoaren bilakaeraren mende, seme-alabak dituzten familiek behar dituzten ondasunen eta zerbitzuen prezioaren eta pisuaren mende baizik.

Hazkuntzaren kostuaren zati bat politika publikoen bidez konpentsatzen da. Azken urteotan urrats garrantzitsuak eman dira, hasi Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Prebentzio eta Borrokarako 2024-2030 Estrategia Nazionala onartzetik eta Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria (SAHLO) abian jarri eta zabaltzeraino.[8] Era berean, Euskadin indartu egin da familiei laguntzeko sistema. Alde batetik, hazteko prestazio unibertsala 4 urtera arte luzatu da haur guztientzat, eta 7 urtera arte zabaldu da guraso bakarreko familien eta familia ugarien kasuan.[9] Bestetik, guraso bakarreko familien erregimena arautzen duen abendua-

---

5 ELGA (2026). OECD Employment Outlook 2026: Spain. ***OECD Employment Outlook 2026: Spain***

6 Save the Children (2025). Ateratzen ez diren kontuak: Langileen pobreziaren erradiografia Euskal Herriko etxetan. Hemen eskuragarri: ***Cuentas que no salen | Save the Children***

7 INE (2026). Bizi-baldintzei buruzko Inkesta, 2025. ***https://www.ine.es/dyngs/Prensa/ECV2025.htm***

8 Gizarte Eskubide, Kontsumo eta 2030 Agendaren Ministerioa (2024). ***https://www.dsca.gob.es/es/comunicacion/notas-prensa/derechos-sociales-aprueba-nueva-estrategia-pobreza-vivienda-desarrollo***

9 Eusko Jaurlaritza. (2026). Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. Hemen eskuragarri: ***Ayudas mensuales a familias con hijas o hijos.***

ren 2ko 232/2025 Dekretua onartu da, mugarri bat dena hazkuntzari laguntzeko politiketan, pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arriskuaren eraginpean bereziki diren familia-errealitatea agerian uzten duelako.[10] Azkenik, Euskadiko Haur Bermearen 2030erako Estrategiak[11] haur-pobrezia murriztea jasotzen du bere lehenengo jarduketa-ardatzean, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak eta familiei laguntzeko politikak indartuz.

Hala ere, laguntzen zati handi bat ez da iristen laguntzak jasotzeko eskubidea dutenengana. 2025ean, Estatu osoan Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera izateko eskubidea zuten familien %52k ez zuen eskatu, eta ehuneko hori %71ra iritsi zen SAHLOren onuradun potentzialak zirenen artean.[12] Oro har, haurrak pobrezia-egoeran diren etxeen %29ra baino ez dira iristen BGDS eta SAHLO.[13] Euskadin daturik ez badago ere seme-alabak ardurapean dituzten familietan take-up delakoari[14] buruz, PGDIk dio arriskuan dauden biztanleen %36, beraz, onuradun potentziala dena, ez dela sartzen Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sisteman.

Testuinguru horretan, haztea zenbat kostatzen den jakinez gero, familiek baldintza egokietan bizi ahal izateko zer behar duten ere jakin daiteke. Txosten honek eguneratu egiten du hazkuntzak 2026an Euskadin izan duen kostua, hazkuntzaren etapa bakoitzean haurrek eta nerabeek dituzten beharrak eta horiek estaltzeko beharrezkoak diren ondasunen eta zerbitzuen prezioa kontuan hartuta.

---

10 Eusko Jaurlaritza. Guraso bakarreko familien baldintzaren aitortza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. Hemen eskuragarri: ***Reconocimiento de la condición de familia monoparental***





11 Eusko Jaurlaritza (2024). Euskadiko Haur Bermearen 2030erako Estrategia (EHBE 2030). Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

12 AIReF (2026). Quinta opinión sobre el Ingreso Mínimo Vital [Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzko bosgarren iritzia]. ***https://www.airef.es/es/noticias/la-airef-propone-reforzar-la-coherencia-del-imv-con-otras-prestaciones-sociales-y-revisar-su-diseno/***

13 AIReF (2026). Spending Review 2022-2026, 2. fasea: Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera. ***https://www.airef.es/es/estudios/ingreso-minimo-vital/***

14 Take-up deitzen zaio prestazioak jasotzeko onuradun potentzialak izanik horiek ez jasotzearen fenomenoari, jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten arren.

> Gastu partidak

1. Elikadura		Espainiako Pediatria Elkarteak gomendatutako dietaren kostua, adin bakoitzerako behar diren kopuruetan, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gomendatutako edoskitze-aldia kontuan hartuta. Ikastetxean eskola-jantokirik ez dutenen eguerdiko bazkaria barne hartzen da; jantokiaren kostua, baldin badago, hezkuntzari egozten zaio.
2. Higienea		higiene-produktuen saski baten kostua, etapa bakoitzaren beharretara egokitutako kantitateetan: lehen urteetan pixoihal eta toallatxo hezeak, desodoranteak, krema edo konpresak, eta nerabezaroan tanpoiak.
3. Arropa eta oinetakoak		adin bakoitzera egokitutako arropa eta oinetakoen oinarrizko kantitatearen kostua; izan ere, haurrak zenbat eta txikiagoak izan, neurriak orduan eta azkarrago aldatzen dira eta orduan eta handiagoa da jantziak aldatzeko beharra.
4. Hezkuntza		haur guztiak eskola publikoetara doazela hartu da kontuan. Ez da ahaztu behar 0 eta 3 urte bitarteko adingabeek haur hezkuntzako ikastetxeetara joateko aukera dutela. Hala ere, zentro horiek ez dira guztiz doakoak eta, familia askorentzat, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko beharraren ondorio bainoago hezkuntza-erabaki baten ondorio denez, partida hori kontziliazioaren arloan sartu da. Hezkuntza-gastua kalkulatzeko kontuan hartu diren partidak eskola-jantokia –hezkuntza-etapa bakoitzean zerbitzu hori duten ikastetxeen ehunekoaren arabera–, testuliburuak eta eskola-materiala dira.
5. Aisialdia eta jostailuak		kontuan hartu dugu jostailu beharrak igotzen doazela 0 eta 12 urte bitartean. Adin horretatik aurrera, aisiak leku handiagoa hartzen du, bai eta teknologia- eta telefonia-produktuek ere.

6. Osasuna		familiek osasun publikoa erabiltzen dutela hartu da kontuan. Horrek barne hartzen ez dituzten kostuak gehitzen dira, adibidez gomendatzen diren baina estalduratik kanpo diren txertoak, odontologiako zenbait zerbitzu, betaurrekoak eta sendagaiak.
7. Altzariak eta tresneria		ehaskak edo orgatxoak behar izaten dira lehen urteetan; ondorengo urteetan, berriz, ohea, burkoak eta izarak aldatzea, etab.
8. Etxebizitza		haurrak ez edukitzetik edukitzera igarotzean zer alde dagoen kalkulatu da. Diferentzia hori haurren etxebizitza-kostuari egotzi zaio, kostua etxe motaren arabera zenbatuz.
9. Etxebizitzaren ohiko gastuak		zerbitzuen saski honetan sartzen dira uraren kostuei, zaborren tasari, saneamendu-tasari, komunitate-gastuei, gasari eta elektrizitateari lotutako partidak.
10. Garraioa		probintziako hiriburu guztietako garraio publikoaren prezioaren arabera kalkulatu da.
11. Kontziliazioa		0-3 urtekoentzat haur-eskolako gastua kalkulatu da, eta 4 urtetik gorakoentzat eskolaz kanpoko jardueren, udako jardueren eta bestelako zainketen (umezaina) kostua sartu da.
12. Ez ohiko gastuak		beste ataletan sartzen ez diren noizbehinkako gastuak, hala nola asteko ordainsaria, txangoak, urtebetetzeak, ustekabekoak, etab.

Hazkuntzaren kostua 2026an

Nola kalkulatzen da? Gastu-partiden definizioa eta zenbatespena

Euskadin 2026an haur bat hazteak dakarren kostua kalkulatzeko, adinaren araberako oinarrizko beharren aurrekontu bat egin dugu.[15] Lehenik eta behin, oinarrizko ondasun eta zerbitzuen saski bat zehazten da, eta gutxieneko kontsumo gisa finkatzen dira gastu-partida bakoitzerako dagozkien erakundeek[16] gomendatzen dituztenak. Bigarrenik, Familien Aurrekontuen Inkestako (2024ko eta 2025eko FAI)[17] datuak erabiltzen dira, eta beste datu-iturri batzuekin –Espainiako lurralde osoan ezarrita diren eta merkatu-kuota duten denden prezioak, beste txosten batzuk eta dagoen literatura– uztartzen dira. Jarraian azaltzen dira gastu-partidak.

Hazkuntzak 2026an izan duen bilakaera (2024koaren aldean)

Euskadin, 2026an seme-alaba bakoitzeko hileko kostua 899 euro da, batez beste. 2024an, berriz, alderatzeko moduko irizpideekin kalkulatutako kostua hilean 879 eurokoa zen[18]; %2,2 igo da, beraz.

1. taulak seme-alaba bakoitzaren hazkuntzako hileko batez besteko kostua bereizirik azaltzen du, aurrez definitutako partida bakoitzerako, eta baita aukera-

15 Ikus eranskina kalkuluaren metodologiari buruzko azalpen xehatu baterako.

16 Adibidez, Espainiako Pediatria Elkartea (EPE), Osasunaren Mundu Erakundea (OME) edo Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea (OCU).

17 FAIn eskura dauden datu berrienak. Bi urteko informazioa sartzeko arrazoia emaitzak fidagarriak izatearren lagin nahiko handia sartu ahal izatea da.

18 2024ko zenbatespena berriro kalkulatu da bi urte horien arteko alderagarritasuna bermatzeko, 2026ko irizpide berak aplikatuta. Hori dela eta, txosten honetan aurkezten diren 2024ko zifrak eta aurreko edizioan argitaratutakoak baliteke bat ez etortzea. Ikus metodologiari buruzko Eranskina.

tutako erreferentziazko bi uneen (2026 eta 2024) arteko bilakaera ere. 2024az geroztik gehien igo diren gastuak ezohiko gastuekin (%11,9, 13 euro/hileko) eta etxebizitzarekin (%11,4, ia 18 euro/hileko) lotuta direnak izan dira. Zentzu horretan, hornidurek (argia, gasa, ura, etab.) urteetan zehar goranzko joera nabarmena eta iraunkorra aurrez aurre jartzen duen partida izaten jarraitzen dute. Hala ere, 2024arekin alderatuta, etxebizitzari lotutakoa da alderik handiena duen bigarren

1. taula. ***Hazkuntzak 2026an duen hileko batez besteko kostua seme-alabako, gastu-partiden arabera bereizita. Metodologia berriarekin 2024koaren aldean izan duen bilakaera***

	(%) 2026	*(€) 2026*	*(€) 2024*	*(%) Diferentzia 2024-26*	*(€) Diferentzia 2024-26*
Elikadura	25,3	227	223	1,9	4
Higienea	2,8	25	23	5,5	1
Arropa eta oinetakoak	6,8	61	59	3	2
Hezkuntza	7,5	67	69	-2,2	2
Aisialdia eta jostailuak	4,2	38	39	-1,5	-1
Osasuna	0,7	6	7	-4,5	0
Altzariak eta tresneria	1,7	15	15	0,5	0
Etxebizitza	19,6	177	158	11,4	18
Etxebizitzaren ohiko gastuak	5,9	53	53	-0,7	0
Garraioa	0,6	6	15	-61,1	-9
Kontziliazioa	11,7	105	112	-6	-7
Ezohiko gastuak	13,1	118	106	11,9	13
Guztira	**100%**	**899**	**879**	**2,2**	**20**

Iturria: Egileak egina, azaldutako metodologiari jarraituz (ikus Eranskina).
Oharra: 2024ko zifrak berriz kalkulatu dira, edizio honetarako irizpide metodologikoei jarraituta, 2026koarekin duen alderagarritasuna bermatze aldera.

partida, gasturik handiena adin txikieneko urkilentzat izanik, harik eta 7 urtetik aurrera elikadurak garrantzi handiagoa hartzen duen arte, etxebizitza bigarrena izatera pasatzen baita.

Partiden pisu erlatiboari erreparatzen badiogu, etxebizitzak (altzariak eta tresnak, etxebizitza eta gastu arruntak multzokatuta) eta elikadurak osatzen dute Euskadin seme-alaba bat hazteko hileko batez besteko kostuaren %45a, eta horrek eragin handia du familien ekonomian, batez ere errenta ertain eta baxuko familietan, errentaren zati handi bat oinarrizko ondasun horien kontsumorako bideratzen dutelako.

Etxebizitza, horri lotutako ohiko gastuak eta ezohiko gastuak ez dira hazkuntzaren kostuan aldaketak izan dituzten partida bakarrak. Kontziliazioa, 0-3 hezkuntza, eskolaz kanpoko edo "umezain" gisako beste zainketa batzuk bezalako gastuak barne hartzen dituena, %6 murriztu da 2024ko prezioekin alderatuta. Jaitsiera hori baliteke egotea lotuta 0-3 urte bitarteko haurrentzat haurreskolak doan jarri eta eskaintzarekin eta horien eskolatze-tasarekin: 2 urteko ikasgelan, Euskadik %94,0ko tasa du, Estatuko batez bestekoa %73,3koa denean.[19] Hala ere, partida hori Estatu osoko handienen artean dago oraindik, eta beharrezkoa da politika publikoak indartzea, zaintzaren eta haur-hezkuntzaren zerbitzuetarako sarbide eskuragarria bermatzeko eta gastu horiek familien ekonomian duten garrantzia murrizteko.

Partida guztiak ez dira handitu 2024tik 2026ra bitartean. Aldaketarik nabarmenena garraioan gertatu da, kostua hileko 15 eurotik 6 eurora jaitsi baita.[20] Mu-

19 Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa. (2026). Sistema Estatal de Indicadores de la Educación 2026 [Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema 2026]. Espainiako Gobernua.

20 Garrantzitsua da kontuan hartzea partida honek seme-alaba batek garraioan dakarren gastu gehigarria jasotzen duela. Garraio publikoaren prezioak hartu dira kontuan, hobeto bereizi ahal izan baita seme edo alaba baten eragin gehigarria erregaiaren eta ibilgailu pribatuen gastuan baino. Hala ere, metropolikoak ez diren edo konektibitate gutxi dagoen guneetan, garraio pribatuko gastuak definitzen du partida hori, eta emaitza horiek ez dira aplikagarriak.

rrizketa hori haur eta nerabeentzako garraio publikoaren hobariak eta doakotasuna zabaltzearen ondorio da, eta zuzenean sartzen da partida honen kalkuluan. Euskadin, eskola-garraiorako aukera zabaltzen duen 164/2023 Dekretuak azal dezake partida horren jaitsiera,[21] familiek seme-alabak ikastetxera joaten direla bermatzeko beren gain hartu behar dituzten gastuak murrizten laguntzen duelako.

Aisialdiak, jostailuek eta osasun-gastuek ere pixka bat behera egin dute, baina askoz ere eragin txikiagoa dute hazkuntzaren guztizko kostuan. Azken kasu horretan, kalkuluak betaurrekoen kostuaren murrizketa jasotzen du, Osasun Ministerioak 2025ean Veo Plana ezartzearen ondorioz.

21 Eusko Jaurlaritza (2023). 164/2023 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta daukaten eskola-garraioari buruzkoa. EHAA, 2023ko azaroaren 20a, 221 zk.

Laukia: Etxebizitza, igotzeari uzten ez dion kostua

Etxebizitza da azken urteetan hazkuntzaren kostua nola aldatu den ondoen azaltzen duen partida. Seme-alabak edukitzeak etxe handiago bat bilatzera behartzen du, logela gehiagorekin, eta ura, argia edo gasa bezalako gastu gehiago bere gain hartzera. 2026an, etxebizitza eta haren gastu arruntak 230 euro kostatzen dira, hilean, Euskadiko seme-alaba bakoitzeko.

Gainera, urteak konpondu gabe daramatzan egiturazko arazo bat da. 2018tik, hazkuntzari lotutako etxebizitzaren kostua etengabe handitu da kalkuluaren edizio guztietan, eta %132 igo da. Horri dagokionez, gorakada bai etxebizitzaren gastuek, bai hornidurenak (ura, elektrizitatea, gasa, komunitatea) izan dute, ia bikoiztu egin dira txosten hau lehen aldiz argitaratu zenetik.

Era berean, garrantzitsua da gogoratzea gure kalkuluak neurtzen duela familiek zer gehiago gastatzen duten etxebizitzan seme-alabak izateagatik, ez zer gastatu beharko luketen. Alde horretatik, familia askok ezin dute izan etxe handiagorik, eta txikiegia zaien batean geratzen dira. Ahalegin hori ez da kostu gisa agertzen, baina haurrek ordaintzen dute, espaziorik, intimitaterik edo ikasteko leku lasairik gabe direlako. Euskadiko familientzako etxebizitzaren kostua %142 hazi da 2018. urtearekin alderatuta. Presio horrek adierazten du 18 urtetik beherako EAEko etxeen %18,1ek etxebizitzarekin lotutako gastu-gainkarga jasaten duela, ardurapeko adingaberik gabeko etxetan erregistratutakoa baino 8 puntu handiagoa (PGDI, 2024). Halaber, haurrak

2. taula. ***Etxebizitzaren kostua hazkuntzan (eurotan hilean, seme-alabako).***

	(€) 2018	***(€) 2022***	***(€) 2024***	***(€) 2026***	***Aldaketa 2018-2026***
Etxebizitza	73 €	84 €	158 €	177 €	+%142
Etxebizitzako hornidurak eta gastuak	26 €	17 €	53 €	53 €	+%104
Etxebizitza, guztira	99 €	101 €	211 €	230 €	+%132

Iturria: egileak egina (2018, 2022, 2024 eta 2026ko hazkuntzaren kostua); Eurostat, EU-SILC, Overcrowding rate by age, sex and poverty status (ilc_lvho05a). Azken eguneratzea: 2026/09/17.

eta nerabeak dituzten familien %4,1ek atzerapenak ditu ohiko etxebizitzari lotutako ordainketetan, eta intzidentzia hori gainerako etxeena (PGDI, 2024) baino lau aldiz handiagoa da. Etxebizitza egoki bat eskuratzeko eta horri eusteko zailtasunek ere bizitegi-gabezia larriak eragiten dituzte, etxe horien %6,5era iristen baitira, hau da, ardurapeko seme-alabarik gabeko familien ia bi halako (PGDI, 2024). Horregatik, aurkezten dugun etxebizitzaren kostuak gutxietsi egiten du, seguruenik, benetako arazoa.

Bukatzeko, aurreko guztiari etxebizitzaren prezioaren igoera gehitu behar zaio, Euskadin familia-aurrekontuaren partida nagusietako bat baita. Ekainean, alokairuaren prezioak gora egiten jarraitu du Euskadin, 14,9 eurora iritsiz metro koadroko, hau da, aurreko urtean baino %0,2 gehiago.[22] Horrela, metro koadroko preziorik altuena duen laugarren erkidegoa da, eta Madrilek, Kataluniak eta Kanariek bakarrik gainditzen dute. Itxurazko azken egonkortzeak ez du ezkutatu behar sakonean den joera: Euskadin alokairua duela bi urte baino %7,9 garestiagoa da gaur egun.[23]

Etxebizitza-kostuari dagokionez, Euskadin metro koadroko prezioak gora egiten jarraitzen du alokairuarenak bezala, eta 3.474,32 euroraino heldu da.[24] Hala, Euskadi Estatuko multzoaren buruan jarri da, Madril eta Balear Uharteak bakarrik ditu aurretik. Seme-alabak dituzten familientzat, gainera, kostua bereziki garrantzitsua da: etxearen prezioak gora egin ahala, beharrezko espazioak ere gora egiten du, eta, horrekin batera, baita etxebizitzaren gastuak ere.

---

22 Idealista (2026). Informe de precios del alquiler, segundo trimestre de 2026 [Alokairuko prezioei buruzko txostena, 2026ko bigarren hiruhilekoa. ***https://www.idealista.com/news/inmobiliario/vivienda/2026/07/01/904183-el-alquiler-en-espana-marca-maximos-tras-cerrar-junio-con-una-subida-del-4-2-anual***

23 Idealista (2026). Histórico de precios de alquiler en Euskadi [Euskadiko alokairuen prezioen historikoa]. Idealistaren prentsa-aretoa. Kontsultaren data: 2026ko arazoaren 5a.

24 EUSTAT (2026). EAEko etxebizitza libreen salerosketen metro koadro eraikiko batez besteko prezioa, erregistroan inskribatutako hiruhilekoaren arabera, Lurraldeari eta etxebizitza-motari jarraiki. Euroak. I/2026. Higiezinen salerosketari buruzko estatistika. ***Tablas estadísticas: Precio medio por metro cuadrado construido de las compraventas de vivienda libre de la C.A. de Euskadi por trimestre de inscripción en el registro, según Territorio Histórico y tipo de vivienda. Euros. I/2026***

Hazkuntzaren kostua adinaren arabera

Beharrak aldatu egiten dira urteekin, eta, beraz, haur bat hazteko kostua ez da beti berdina, haurra edo nerabea zein etapetan den. Horregatik, lau alditan kalkulatu dugu hazkuntzaren kostua: 0-3 urte, 4-6 urte, 7-12 urte eta 13-17 urte. 2. taulak aurretik azaldutako gastu-partiden adinaren araberako banaketa erakusten du.

0 eta 3 urte bitartean, hazkuntzaren kostua 647 eurokoa da hilean. Hori da kosturik txikieneko etapa, eta 2024an baino %4 gutxiago da. Etxebizitza da etapa horretako partida nagusia (177 euro hilean), eta horren atzetik daude kontziliazioa (115 euro), arropa eta oinetakoak (90 euro) eta elikadura (84 euro).[25]

4 eta 6 urte bitartean, kostua hilean 802 eurokoa da, 2024an baino %3 gehiago. Gastuaren osaera, ordea, aldatzen hasi da: elikaduraren pisuak gora egin du bereziki (64 euro), eta etxebizitzak partida nagusietako bat izaten jarraitzen du (177 euro). Horiei kontziliazioa (135 euro) eta ezohiko gastuak (92 euro) gehitu behar zaizkie.

7-12 urtekoen artean, berriz, kostua 942 eurokoa da hilean, 2024an baino %2 gehiago. Elikadura da, argi eta garbi, partida nagusia, 248 euro baitira hilean, eta ezohiko gastuek (128 euro) pisu handiagoa dute, besteak beste, txango eta beste jarduera batzuengatik. Kontziliazioa ere gastu nagusien artean dago, 135 euro dira hilean.

25 Kalteberatasun-egoeran dauden eta/edo enplegu prekarioak dituzten amek edoskitze-tasa txikiagoak dituzte (Cole et al 2024, Francis et al 2021) hainbat faktorerengatik, adibidez espazio egokirik ez izateagatik edo laneko segurtasun ezagatik. Beraz, zenbatespen kontserbadorea da, eta eragina are handiagoa da etxe kalteberagoko amen artean.

3. taula. ***Seme-alaba bakoitzeko hazkuntzaren kostua hilean, gastu-partida eta adin-tarteen arabera (€, % eta 2024koaren aldean izan den bilakaera)***


	0-17 urte		0-3 urte		4-6 urte		7-12 urte		13-17 urte	
	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)
Elikadura	227	%25,3	84	%13	149	%19	248	%26	305	%30
Higienea	25	%2,8	59	%9	20	%2	17	%2	19	%2
Arropa eta oinetakoak	61	%6,8	90	%14	35	%4	47	%5	72	%7
Hezkuntza	67	%7,5	0	%0,0	87	%11	88	%9	71	%7
Aisialdia eta jostailuak	38	%4,2	20	%3	26	%3	31	%3	59	%6
Osasuna	6	%0,7	3	%0	5	%1	8	%1	7	%1
Altzariak eta tresneria	15	%1,7	40	%6	24	%3	10	%1	4	%0
Etxebizitza	177	%19,6	177	%27	177	%22	177	%19	177	%17
Etxebizitzaren ohiko gastuak	53	%5,9	53	%8	53	%7	53	%6	53	%5
Garraioa	6	%0,6	0	%0,0	0	%0	0	%0	17	%2
Kontziliazioa	105	%11,7	115	%18	135	%17	135	%14	59	%6
Ezohiko gastuak	118	%13,1	5	%1	92	%12	128	%14	172	%17

2026	**899 €**	**647 €**	**802 €**	**942 €**	**1014 €**
2024	879 €	674 €	778 €	922 €	981€
Euskadi 2024-2026 (€)	20 €	-25 €	24 €	19€	33 €
Euskadi 2024-2026 (%)	%2,2	-%4	%3	%2	%3

Iturria: Egileak egina, azaldu den metodologiari jarraituz (ikus Eranskina).
Oharra: 2024ko zifrak berriz kalkulatu dira, edizio honetarako irizpide metodologikoei jarraituta, 2026koarekin duen alderagarritasuna bermatze aldera.

Nerabezaroan sortzen da hazkuntza-kosturik handiena: hilean 1.014 euro, 13 eta 17 urte bitartean; hau da, 2024an baino %3 gehiago. Elikagaiak 305 euro dira hilean,[26] eta kostu osoaren %30eraino heltzen dira. Etxebizitzak 177 euroko kostuarekin jarraitzen du, kostu osoaren %17 hartzen du, eta ezohiko gastuek beren gehienekora heldu dira 172 euroko gastuarekin. Aurreko etapekin alderatuta, aisialdiko eta jostailuen eta arropa eta oinetakoen gastuek ere gora egin dute. Azken hori 0-3 urteko etapan baino ez da handiagoa.

1. grafikoa. ***Hazkuntzaren kostua adin-tarteen arabera, eta bilakaera (2024-2026).***




Iturria: Egileak egina, azaldu den metodologiari jarraituz (ikus Eranskina).
Oharra: 2024ko zifrak berriz kalkulatu dira, edizio honetarako irizpide metodologikoei jarraituta, 2026koarekin duen alderagarritasuna bermatze aldera.

26 Metodologia aldaketarekin, eskola-jantokirik ez dutenen eguerdiko bazkaria elikadura atalean sartzen da, eta ez hezkuntzan. Eragina handiagoa da 13 eta 17 urte bitartean, bigarren hezkuntzako ikastetxe gutxik baitute jantokia.

1. irudia..

Hazkuntzaren hileko batez besteko kostuaren partida nagusiak, adin-tarteen arabera




Nor ez da heltzen? Hazkuntzaren kostua etxeko errentaren arabera

Hazkuntzaren kostua oso desberdina da familientzat diru-sarreren mailaren arabera. Alde horiek aztertzeko, haurrak eta nerabeak dituzten etxetako errenta erabilgarriarekin alderatzen dugu hazkuntzaren kostu zenbatetsia.

Euskadin ardurapean haurrak dituzten etxeen %17tan, diru-sarrera erabilgarriak ez dira nahikoa hazkuntzaren kostu zenbatetsia estaltzeko. Goiti beheiti, 27.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten 35.533 familiek ezin diote aurre egin kostu horiei, ezta errenta osoa erabilita ere.

Proportzioa %3 igo da 2024. urtearekin alderatuta, orduan %14ra iristen baitzen, 29.307 familia alegia, etxeetako bizi-kostua gora ari zen testuinguru batean (2025eko BBI). Igoera hori azaltzen lagun dezaketen faktoreen artean daude inflazioaren hazkundea eta gizarte-laguntzak (adibidez, DSBE, BGDS eta SSAHLO) lortzeko oztopoak.

2. grafikoa. ***Hazkuntzaren kostuak etxean erabilgarri den errentan eratzen duen ehunekoa (2024-2026)***



Oharra: diru-sarreren banaketa haur eta nerabeak dituzten etxe guztiei dagokiena da (2023 eta 2025eko BBI). Lehenengo dezila errenta txikienekoa da, eta hamargarren dezila, berriz, errenta handienekoa. 2024ko zifrak berriz kalkulatu dira, edizio honetarako irizpide metodologikoei jarraituta, 2026koarekin duen alderagarritasuna bermatze aldera.

Ahalegin ekonomikoak handia izaten jarraitzen du kostu horiek estal ditzaketen etxetan ere. Haurrak dituzten hamar familiatik hiruk beren errenta erabilgarriaren %50 baino gehiago bideratu behar dute hazkuntzara.

Ahalegina bereziki handia da errenta baxuko eta ertain-baxuko etxetan: hirugarren eta laugarren dezilekoek (urtean 35.000 eta 41.000 euro arteko diru-sarrerak dituztenak) beren errentaren %46 eta %65 artean zuzendu behar dute.

Azken batean, hazkuntzaren kostuari aurre egiteko zailtasunak ez dira diru-sarrera txikienak dituzten etxetara mugatzen, errenta baxu eta ertain-baxuko langile-familiei ere eragiten baitiete. Laneko diru-sarrerak eta prestazio publikoak ez dira beti seme-alaben beharrak asetzeko nahikoak izaten familiaren gainerako aurrekontua arriskuan jarri gabe.

Hazkuntzak ezin du jarraitu pobretze-faktore bat izaten: ahaleginarekin jarraitzeko deia

Hazkuntzaren kostua, Euskadiko familia askorentzat, karga ekonomiko onartezina izateaz gain, funtsezko inbertsioa ere bada gure gizartearen etorkizunerako. Haurren eta nerabeen hazkuntzan inbertitzea gizarte bidezkoago, aberatsago eta produktiboago baten alde apustua egitea da. Hala ere, familiek erronka ekonomiko itzelei aurre egiten jarraitzen dute, gizarte-laguntzako sistema ez baita nahikoa beren behar gero eta handiagoei erantzuteko. Gainera, kontuan izan behar da EAEko laguntza-sistema kenkari fiskaletan oinarrituta dagoela, eta mekanismo horrek ez duela bermatzen laguntza jasotzeko eskubidea duten edo laguntza behar duten familia guztiek jasoko dutenik. Alde batetik, 20.000 eurotik beherako urteko errentak dituzten familiak aitorpena aurkeztetik salbuetsita daude. Errenta oso baxuak dituzten familia horiek ez dute errenta-aitorpenik aurkezten,

edo ez dute kenkariak osorik aplikatzeko behar adinako zerga-kuotarik, eta beraz, neurri horietatik lortzen duten onura nahiko murriztua da.

Bestetik, familia batzuek, kenkari jakin batzuk jasotzeko eskubidea izan arren, ezin dituzte osorik aprobetxatu, kendu beharreko zenbatekoak ordaindu beharreko zergak gainditzen dituelako. Horrela, 2.000 euroko kenkaria izateko eskubidea duen baina 1.000 euroko zerga-kuota duen familia batek laguntzaren erdia baino ez du jasoko. Horren ondorioz, euskal laguntza-sistemarako benetako sarbidea ez dago soilik etxetako hazkuntza-premien mende, haien egoera fiskalaren mende ere badaude, eta horrek mugatu egiten du laguntzen irismena, hain zuzen ere, baliabide gutxien dituztenen artekoei.

Laguntzak behar dituztenengana iristen ez direnean, areagotzen doa pobrezia-egoerak denboran luzatzeko arriskua. Horregatik, funtsezkoa da take-up fenomenoa haurren ikuspegitik neurtu ahalko duten inpaktu-azterlanak izatea eta gizarte-babeseko baliabideetarako sarbide eraginkorragoa bermatuko duten neurriak bultzatzea.

Horregatik guztiagatik, handitu egin behar da haurtzaroari zuzendutako inbertsio publikoa, oraindik Europako batez bestekotik urrun dena, familiei laguntzeko mekanismoak indartuz, esaterako BGDS, Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria (SAHLO) eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), eta 4 eta 17 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako hileko laguntzak handituz, haien eskuragarritasuna eta osagarritasuna hobetuta. Horren aurrean, Save the Childrenek gogorarazten du oso garrantzitsua dela etxe ahulenei laguntzeko neurriak hedatzen jarraitzea, eta premiazkoa dela haurrak eta haien baldintza sozio-materialak ekintza politikoaren erdigunean jartzea, bai estatu mailan, bai lurralde-maila guztietan.

Hazkuntzaren kostu handiak agerian uzten du gizarte-premia hori. Hazkuntzari laguntza egokia emateko, zeharkako eta maila anitzeko politikak behar dira, hainbat alderdi hobetzeko, adibidez haurreskoletarako aukera, amatasun/aitata-

sun baimen besterenezinak edo zuzeneko eta zeharkako zergen progresibitate globala hobetuko duen erreforma koherente bat, besteak batzuen artean. Dena dela, Save the Childrenen txosten honek haurrak hazteko laguntza-maila egokiak lortzeko transferentzien politika publikoen jarduera-ildo nagusietako batzuk baino ez ditu zerrendatzen, arreta berezia jarriz kalteberenengan.

> 1. jarduketa-ildoa: haurrekiko ikuspegia jasotzen duen diru-sarrerak bermatzeko sistema bateranzko urratsak

Lanbidek Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketa bere gain hartzeak aukera estrategikoa eskaintzen du Euskadin seme-alabak dituzten familien babes ekonomikoa indartzeko. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerak (BGDS) haurrei eta guraso bakarreko familiei laguntzeko elementuak dituzten arren, oraindik ere administrazio-oztopoak, koordinazio-arazoak eta estaldura txikiko egoerak gertatzen dira, eta horrek zaildu egiten du prestazio horiek behar duten familia guztiengana heltzea.

Testuinguru horretan, lehentasuna du DSBEren eta BGDSren arteko integrazio eta osagarritasun handiagoa lortzeak, prozedurak sinplifikatuz, karga burokratikoak murriztuz eta eskubideen aitorpenean automatizazioa sustatuz. Urratsak eman beharko lirateke bi laguntza horien baterako kudeaketarantz, parametro berberak erabiliz desorekak saihesteko. DSBE eskatu ahal izateko beharrezkoa den arren aldez aurretik BGDS eskatzea, bi laguntzak ez daude elkarrekin kateatuta, eta izapidetze-, diseinu- eta jarraipen-mekanismo desberdinak dituzte. Horren adibide garbia da DSBEa azken hiru hilabeteetan pertsonak edo familia-unitateak izandako diru-sarrerak kontuan hartuta berrikusten dela; BGDSa, aldiz, aurreko urteko diru-sarreretatik abiatuta kalkulatzen da, errenta-aitorpenaren arabera.

Era berean, beharrezkoa da zenbatekoak eta sarbide-irizpideak Euskadiko hazkuntza-kostuen errealitatera egokitzea; batik bat, hazkuntzaren kostua Estatuko batez bestekoa baino handiagoa den testuinguru batean. Horretarako, bi prestazioen diseinuan haurren eta nerabeen behar espezifikoak kontuan hartzea gomendatzen da, laguntza ekonomikoek haien ongizatearekin eta garapenarekin lotutako gastuak estaltzen lagunduko dutela bermatuz. Aldian-aldian zenbatekoen nahikotasuna berrikustea proposatzen da, hazkuntza-kostuen bilakaera kontuan hartuta, eta prestazioen eta enplegutik datozen diru-sarreren arteko bateragarritasuna hobetzea.

Familiei zuzendutako prestazioak eta laguntzak eskuratzeko leihatila bakarra sortzeak, gainera, aukera emango luke izapideak errazteko, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen laguntza hobetzeko eta gaur egun haien eskubideak benetan egikaritzea mugatzen duten oztopoak murrizteko. Eredu horrek arreta irisgarria eta haur eta nerabeak dituzten familien premietara egokitua dena jaso beharko luke, eta bermatu beharko luke familia bakar bat ere ez dela gizarte-babesetik kanpo geratuko zailtasun administratiboengatik edo informazio faltagatik.

> 2. jarduketa-ildoa: seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria (SAHLO) hazkuntzaren benetako kostura egokitzea eta horren aldizkako eguneraketa bermatzea

Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria (SAHLO) funtsezko tresna bat da haurren pobrezia prebenitzeko eta murrizteko, haurrak eta nerabeak dituzten familien babes ekonomikoa osatuz eta, pobrezia larrian egon gabe ere, hazkuntzari lotutako kostuak beren gain hartzeko zailtasunak dituzten familiengana helduz. Hala ere, gaur egungo diseinuak eta eguneratzeko mekanismorik ez egoteak mugatu egiten dute tresna horrek familien behar ekonomikoei behar bezala erantzuteko duen gaitasuna.

Egun, SAHLOk hilean 115 euro ezartzen ditu 3 urtetik beherakoentzat, 80,50 euro 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat, eta 57,50 euro 6 eta 18 urte bitartekoentzat. Laguntza horren diseinuak agerian uzten du prestazioa hazkuntzaren benetako kostura egokitu behar dela. Azterlan honek erakusten duenez, hazkuntzak eragindako gastuek ez dute behera egiten adinean aurrera egin ahala; aitzitik, nerabezaroan iristen dira gorenera. Beharrezkoa da, beraz, osagarriaren zenbatekoak berrikustea, haurtzaroko eta nerabezaroko etapetan hazkuntzaren benetako kostua modu egokiagoan isla dezaten.
Era berean, sarbide-irizpideak berrikustea komeni da, seme-alaben kopuruak eta adinak etxetako benetako gaitasun ekonomikoan duten eragina hobeto txertatzeko. Diru-sarreren maila bera izateak egoera oso desberdinak ekar ditzake, familia bakoitzak bere gain hartzen duen hazkuntza-zamaren arabera; beraz, prestazioaren diseinuak zehatzago hartu beharko luke kontuan errealitate hori.
Azkenik, funtsezkoa da SAHLOk denboran zehar bere babes-ahalmena mantenduko duela bermatzea. Horretarako, hazkuntzaren kostuaren bilakaerari lotuta aldizka eguneratzeko mekanismo arautuak ezartzea gomendatzen da, urratsak emanez haurren ongizaterako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuen garestitzea neurtu ahal izateko indize espezifiko bat sortzeko bidean. Horrela, zenbatekoek laguntza ekonomikorako duten benetako gaitasunari eutsi ahal izango diote, eta modu eraginkorrean laguntzen jarraitu ahal izango dute hazkuntza-kostuak konpentsatzeari eta haur-pobreziaren arriskua murrizteari begira.

> 3. jarduketa-ildoa: kreditu fiskal itzulgarriak ezartzea seme-alabak kargupean dituzten familien pobrezia murrizteko neurri gisa.

EAEko laguntza-sistema kenkari fiskaletan oinarritzen da gehien batean. Hala ere, kenkari horiek jasotzeko eskubidea duten pertsona askok ezin dituzte erabili kenkari horietako asko, kendu beharreko zenbatekoak ordaindu beharreko

zergak gainditzen dituelako. Hortaz, kreditu fiskal itzulgarriak alternatiba egokia izan daitezke.[27]

Horrela, pobrezia-egoeran dauden eta ordaindu beharreko zergak gainditzen dituzten kreditu fiskaleko zenbatekoak zergadunaren aldeko prestazio ekonomiko bihur daitezke. Hori posible izango litzateke kreditu fiskala itzulgarria den heinean.

Kreditu fiskal itzulgarri horiek kenkari fiskal gisa eratzen dira, eta "tarte negatibo" bat dute. Hau da, kenkaria edo onura fiskala egiteko zerga-oinarririk ez dagoen heinean, zuzenean ordaintzen da, zuzeneko itzulketa edo ordainketa fiskal gisara.

Tarte negatiborik ez duten eta gizarte-babeseko sistematik deskonektatuta dauden zerga-kenkari tradizionalen alternatiba bat da. Eredu hori dagoeneko ezarrita da Erresuma Batua bezalako herrialdetan, "Child Tax Credit" programaren bidez, besteak beste.

Erresuma Batuaren kasuan, orain arte zeuden hainbat kreditu fiskal batu ziren «Child Tax Credit» bakar baten pean, eta laguntza-sare gero eta sinplifikatuago eta integratuago bat sortu zen. 1997-2010 aldian erregistratutako transferentziek urtean 18.000 milioi liberako hazkundea ekarri zuten (2010eko BPGren %1,2) seme-alabak dituzten familientzako prestazioetan.[28] Hamarkada horretan, Erresuma Batuak murrizketa historikoak izan zituen haurren pobrezia-tasetan, ELGAko beste edozein herrialdek baino handiagoak.[29]

Orobat, familiengana iristeko formula bat izango litzateke errenta-aitorpenaren unibertsalizazioa ezartzea. Horrela, Administrazioak herritarrak erdigunean

27 Barragué, B., et al., Gestionando la renta de garantía de ingresos como crédito fiscal reembolsable: un estudio exploratorio centrado en el complemento de pensiones [Diru-sarrerak bermatzeko errenta kreditu fiskal itzulgarri gisara kudeatzen: pentsioen osagarrian oinarritutako esplorazio-azterketa. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Inklusiorako txostena. Eusko Legebiltzarra, Vitoria - Gasteiz, 2024, 33 or.

28 Browne, J., & Phillips, D. (2010). Tax and benefit reforms under Labour.

29 OECD. (2011). «Doing Better for Families: United Kingdom». Paris: OECD Publica

kokatzeko informazio guztia izango luke, arreta berezia jarriz ahulenengan, laguntzak modu eraginkorragoan eskuratzea ahalbidetuz.

> 4. jarduketa-ildoa: hileko laguntza unibertsala zabaltzea seme-alabak dituzten familientzat Euskadini

2023tik, Euskadik pixkanaka indartu egin du hazkuntzari diruz laguntzeko bere sistema, seme-alabak dituzten familientzako hileko laguntzen bidez. Hasiera batean lehen haurtzaroari zuzentzen ziren, baina prestazio horiek zabaldu egin dira 0-4 urteko haur guztiengana heltzeraino, hileko 200 euroko laguntzarekin seme-alaba bakoitzeko, eta 7 urtera arte luzatzen dira guraso bakarreko familien eta hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasuan, hazkuntzari lotutako kostuen zati bat konpentsatzen lagunduz horrela.

Prestazio horrek, dena dela, ez du estaltzen haurtzaroko eta nerabezaroko etapa osoa, eta ez da nahikoa haurren pobrezia gutxitzeko eta hazkuntzaren ondoriozko familien zama ekonomikoa arintzeko. Gainera, txosten honek aztertzen duen moduan, hazkuntzaren kostuak gora egiten du haurrak eta nerabeak hazten doazen heinean. Horregatik, garrantzitsua da prestazio hori 17 urtera arte handitzea, adin hori barne dela. Neurri hori apustu handia da, zalantzarik gabe, eta Euskadi Espainia osoaren buruan jarriko luke, aurrekontu-mugak dituen arren hori handitzeko. Gauzak horrela, abiapuntu egokia izango litzateke aurreko puntuan azaldutako kreditu fiskal itzulgarrien aukera aztertzea.

Horrelako prestazio batek aukera emango luke hazkuntzari lotutako kostuen zati bat estaltzeko, oztopo burokratikoak murrizteko eta laguntza egonkor nola jarraitua eskaintzeko, bereziki garrantzitsua dena baliabide gutxien dituzten familientzat.

> 5. jarduketa-ildoa: etxebizitza egoki eta eskuragarri baterako eskubidea bermatzea

Etxebizitzaren kostua da Euskadin seme-alabak dituzten familiek aurre egin beharreko gastu nagusietako bat; hileko batez bestekoa 177 eurokoa da ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko. Azken urteotan etengabe egin du gora, eta horrek mugatu egiten du familia askok hazkuntzari lotutako kostu guztiei aurre egiteko duten gaitasuna. Aztertutako datuek agerian uzten dute etxebizitza egokia eta eskuragarria lortzeko politika publikoak indartu behar direla, haurren ongizatea eta garapena bermatzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da haurrak zeharkako lehentasun gisa txertatzea etxebizitza-politiketan, eta adingabeak dituzten familiak premia espezifikoak dituzten kolektibotzat jotzea. Horretarako, indartu egin behar da seme-alabak dituzten familiek etxebizitza babestua eta alokairu-laguntzak eskuratzeko aukera, baliabideak erreserbatzeko mekanismoen bidez; etxebizitza sozialen parkea handitu behar da, hazkuntzaren beharretara egokituta, eta laguntzak eskuratzeko irizpide ekonomikoak egokitu egin behar dira haurrak eta nerabeak dituzten familien errealitatera. Era berean, funtsezkoa da bizigarritasun-baldintza egokiak bermatzea, etxebizitza-pilaketei eta -gabeziei aurrea hartzea, etxebizitza-politikek haurrengan duten eragina neurtzeko sistema hobetzea eta erakunde espezializatuen eta, are, haurren beren parte-hartzea sustatzea jarraipen- eta gobernantza-guneetan. Hori guztia, Europako Haur Bermearen helburuekin bat datorren ikuspegi integral batetik egin behar da, eta Euskadiko Haur Bermearen 2030erako Estrategiaren[30] 6. erronkak adierazten duen bezala, egoera ahulenean dauden adingabeak dituzten familiei lehentasuna emanez.

30 Eusko Jaurlaritza (2024). Euskadiko Haur Bermearen 2030erako Estrategia (EHBE 2030). Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

Metodologiari buruzko eranskina

Estrategia metodologikoa

Azterlan honetan erabilitako estrategia metodologikoa zazpi urratsetan banatzen da, 4. taulan azaltzen da laburbildurik.

Lehenik eta behin, etxeak bost motatan sailkatu dira, guraso bakarreko etxea edo bikotekideen etxea den eta ardurapeko haur kopurua kontuan hartuta. Ez da gauza bera seme-alaba bat edo bi edo hiru haztearen kostua, eta guraso bakarreko familiek eta bikotekideek ere ez dituzte behar ekonomiko berberak. Bigarrenik, haurrak lau adin-tartetan sailkatu dira: 0-3 urte bitartekoak, 4-6 urte bitartekoak, 7-12 urte bitartekoak eta 13-17 urte bitartekoak. Bereizketa hori garrantzitsua da, haurren beharrak desberdinak direlako urtez urte.

Hirugarrenik, 12 gastu-partida bereizi zehaztu dira, eta horietako bakoitzerako gastuak desberdin zenbatzen dira. Horien xehetasuna 2026ko hazkuntzaren kostuaren emaitzen atalaren hasieran azaltzen da. Gastu-partida hauek jasotzen dira: elikadura, higienea, arropa eta oinetakoak, hezkuntza, aisia eta jostailuak, osasuna, altzariak eta tresnak, etxebizitza, etxebizitzaren ohiko gastuak, garraioa, kontziliazioa eta ezohiko gastuak.

Laugarrenik, murriztu egin da Familien Aurrekontuen Inkestaren (FAI) lagina, hazkuntzaren kostua kalkulatzeko etxeen lagin adierazgarri bat lortze aldera.[31]

31 Azterketa honetan bi FAI berrienen datuak erabiltzen dira, 2024koa eta 2025ekoa. Bi urteko informazioa sartzeko arrazoia emaitzak fidagarriak izateko behar besteko lagin handia izateagatik da.

Bosgarrenik, FAI erabiltzen ez duten partidetarako, produktuen zerrenda bat ezartzen da horietako bakoitzerako, eta baita produktu bakoitzerako behar diren kantitateak ere; prezioak Espainiako lurralde osoko hainbat denda edo iturri adierazgarritan bilatzen dira.

Seigarrenik, FAIren lagin objektiboa eta partidetako ondasunen eta zerbitzuen saskiak lortu ondoren, gastuak adin-tartearen arabera kalkulatzen dira.

Azkenik, datu horiek guztiak adin-tartearen eta partidaren arabera gehitzen dira, eta behin betiko emaitzak lortzen dira ondoren.

4. taula.. ***Hazkuntzaren kostua kalkulatzeko metodologiarako urratsak***

1	***Etxe motaren definizioa***	Bost familia-moten definizioa: seme-alaba bat duen heldua, bi seme-alaba dituen heldua, seme-alaba bat duen bikotea, bi seme-alaba dituen bikotea, eta hiru seme-alaba dituen bikotea. Partida batzuetan, seme-alaben gastuak ezin direnez helduen gastuetatik bereizi, bi tipologia osagarri erabiltzen dira konparaziorako: seme-alabarik gabeko helduak, eta seme-alabarik gabeko bikotea.[32]
2	***Adin-tarteen definizioa***	Lau adin-tarteren definizioa: 0-3 urte, 4-6 urte, 7-12 urte eta 13-17 urte.

32 Horren arrazoi nagusia da azterlan honetan kontuan hartutako partida batzuetan ezin direla bereizi helduek egiten duten kontsumoa eta haurrek egiten dutena. Adibidez, eskola-garraioa edo eskola bezalako partidak, bistan denez, haurren gastu esklusiboak dira, baina etxebizitza edo hornidura-gastuak ezin dira bereizi. Beraz, partida horietan haurrei legokiekeen gastua egotzi ahal izateko, seme-alabarik gabeko etxe baten eta seme-alabak ardurapean dituzten etxe beraren arteko aldea erabiltzen da –heldu kopuruari dagokionez–.

3	***Gastu-partiden definizioa***	Partida hauen definizioa: elikadura, higienea, arropa eta oinetakoak, hezkuntza, aisia eta jostailuak, osasuna, altzariak eta tresnak, etxebizitza, etxebizitzaren ohiko kostuak, garraioa, kontziliazioa eta ezohiko gastuak.
4	***FAIren lagin adierazgarriaren definizioa***	Hauek dira hautapen-irizpide nagusiak: (i) 1. puntuko definizioaren araberako etxeak; (ii) heldu batek, gutxienez, etxean egiten du lan;[33] (iii) ardurapeko seme-alabatzat hartzen da lan egiten ez duen 18 urtetik beherako edozein adingabe; (iv) ez dira kontuan hartzen 16 edo 17 urtetik beherako adingabeek lan egiten duten etxeak.
5	***Ondasun eta zerbitzuen otarraren hautaketa***	FAI erabiltzen ez den partidetarako, beste datu-iturri batzuetan eta estatu mailako dendetan prezioak kontsultatzean oinarritutako produktu eta kantitateen zerrenda bat ezartzen da.
6	***Partida bakoitzaren kalkulua***	Partida bakoitzerako, horri lotutako kostua kalkulatzen da, aurretik ezarritako irizpideen arabera.
7	***Kalkuluen metaketa***	Aurreko urratseko kalkuluak gehitzen dira guztizko emaitzak lortzeko.

33 Baztertze horren arrazoia da partida batzuetan langabezian egoteak gastu osoa gutxitu dezakeela. Kontziliazioaren partida kalkulatzeko, gainera, aukera hori baztertu beharra zegoen.

Metodologia aldaketa eta alderagarritasuna

Edizio honetan eguneratu egin da hezkuntza eta elikadura partiden metodologia. Aldaketa hori INEren Familien Aurrekontuen Inkestan gastuen sailkapen berri bat sartzeak eragin du. Sailkapen horrek aldatu egiten du azterlanean erabilitako gastu-partida batzuen definizioa, eta eragotzi egiten du aurreko edizioekin alderatzea. Aldaketa hori baliatu da hezkuntzako partida OCUren datuetara eta autonomia-erkidego bakoitzeko jantokiko tarifa ofizialetara hurbiltzeko, hezkuntza-etapa bakoitzean zerbitzu hori duten ikastetxeen ehunekoa kontuan hartuta. Hala, ikastetxeak jangelarik ez duenean, eguerdiko bazkaria elikadura-partidan sartzen da. Bukatzeko, eskola-garraioa ez da sartzen, sare publikoan doakoa delako zerbitzu hori jasotzeko eskubidea duten ikasleentzat.

Denboraren araberako alderagarritasuna bermatzeko, 2024ko hazkuntzaren kostua metodologia berri honekin birkalkulatu da. Beraz, txosten honetan aurkezten diren 2024ko zifrak ez datoz bat aurreko edizioan argitaratutakoekin. Bien arteko aldea aldaketa metodologikoari zor zaio soil-soilik, eta ez prezioen bilakaerari edo bestelako arrazoi batzuei. 2024tik 2026ra bitarteko aldakuntza guztiak birkalkulatutako zifratik abiatuta kalkulatu dira, metodologia homogeneo bat aplikatuta.

Txosten hau ***KSNET***, ***Knowledge Sharing Network, S.L.*** aholkularitzak burututako analisian oinarrituta egin da.
Hauek osatu dute ikerketa taldea: Mireia Alvarez, Elena Costas, Ines Salinas, Maria Sanchez,
Laia Telechea eta Pere A. Taberner.

Save the Children

CC BY NC SA

Edita:

Save the Children España
Noviembre 2026

Save the Children

